

FUNTSEZKO SOZINETATEAK:

Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?

Lehenik eta behin, enpresako kideok zuzendaritza orokor bat osatuko dugu dena modu egokian zuzentzeko. Gainera, laurok izango gara bertako kideak.

Horrez gain, beste lau arlotan banatuko da gure enpresa langile bakoitzaren trebetasunen arabera: giza baliabideen arloa, ekoizpena, finantza-arloa eta merkataritza-arloa.

GIZA BALIABIDEEN ARLOA:

Maialen izango da giza baliabideen arloaz arduratuko den langilea, beste langileekin harremanak mantentzeko eta adostasunetara heltzeko izango dituen erraztasun edo trebetasunarengatik; izan ere, arlo honetan, langileei elkarrizketak egin beharko zaizkie kontratuak eta soldatak adostez gain.

EKOIZPENA:

Leire izango da ekoizpenaren langile nagusia, antolaketarako eta ordenerako trebetasun eta abilezia handiak dituelako. Leirek lehengaien hornidura eta ekoizpen-prozesua kontrolatuko ditu enpresaren antolaketan hein handi batean parte hartzeaz gain.

FINANTZA-ARLOA:

Sara arduratuko da finantza-arloaz, eta bertan, ezinbestekoa izango da bankuarekin harremana mantentzea. Azken batean, enpresak bankuaren diru-laguntzak beharko ditu hainbat gauza burutzeko; esaterako, maileguak eskatu beharko ditu edo beste edozein eginbeharretarako diru-laguntza eskatzea beharrezkoa izango da. Marketing arloari dagokionez, publizitatea egiteko garaian (kartelak ezartzeko) dirua beharrezkoa izango da eta horretarako, bankuaren laguntza ezinbestekoa izango du enpresak. Horregatik guztiagatik, aproposena bankuarekin harreman sendo bat mantentzea izango da, enpresa eta bankuaren artean adostasun batera iristeko.

MERKATARITZA-ARLOA:

Marak merkataritza-arloa eramango du; izan ere, gaitasun handiak ditu jendearekin harremanak iztateko, ideia originalekin produktuak merkatura zabaltzeko eta jende aurrean hitz egiteko. Aurreko guztia kontuan edukiz, langile honen lana marketing-a, bezeroarekin harremana eta publizitatea aurrera eramatea eta antolatzea izango da.

